



CHRISTIAN, William (Jr.)
Visionaries. The Spanish Republic and the Reign of Christ

Berkeley: University of California Press, 1996. - 544 p.; 24 cm.
ISBN 0-520-20040-3

Nik ez dakit antropologoek idatziriko liburuek nolakoak izan behar duten, baina Christianen "Visionaries. The Spanish Republic and the Reign of Christ" irakurtzen duten gehienak, nik uste, bat etorriko direla liburu honek eduki aberatsa eta kontraera atsegina era liluragarrian bateratzen dituela aitortzeko orduan. Liburuan azaltzen diren gertakariak jazo ziren lekutik metro gutxitara jaioa naizen honi, zirrara eragin dio Christianek lerroz lerro, emeki eta maisukiro eraiki duen munduak.

1672-1675. urteetan Marguerite-Marie Alacoquerekin Paray-le-Monialen hasi eta 1981ean Medjugorjean bukatzen den kronologia hautatu xehea ezin hobeki eskaintzen du agerpen eta agerkerien ikuspegi diakronikoa. Hiru azken mendeetan nabarmendu den agerzte-fenomenologia biltzean, antropologoak kokagune bat prestatu dio eta horrela Lourdes, Fatima, Medjugorje bezalako agertokiaren barruan eta Gemma Galgani, Pio de Pietrelcina eta abar bezalako estigmatunen artean ezartzen ditu agerkeri-ikusleak.

"Ezkioko Amabirjinaren agerpenak" bezala ezagutu izan den fenomeno edo fenomeno-multzoa, 1931ko ekainean hasi zen, gaur egun Ezkio-Itsaso izenpean ezaguna den udalerrian, Santa Lutzia auzategitik hurbil dagoen mendarte batean. Haur batzuek Amabirjina ikusten zutela aitortu ondoren, ehundaka ikusleak milaka bisitari erakarri zituzten agertoki hartara. W. Christian ez da mugatzen Ezkioko gertakarietara, baizik eta antropologo-ikusmen zorrotzez Espainia errepublika bihurtu eta handik gutxira hasi ziren kleroaren aurkako bihurrialdien eta erlijosoen komentuen erreketen testuinguru zabalagoan aztertzen ditu. Espainiako gobernuak erreprimatu, eta Vatikanok azkenean bere gaitzespena eman eta ikusleak eta agerpenen fenomeno guztia ilunpera saihestu zuen arte milioi bat pertsona baino gehiagok egin zioten bisita jatorrizko agerpen-lekuari.


William Christianen liburuan bi eratako ikusleak ageri dira: Amabirjina eta santuak ikusten zituzten ikusleak, eta etorkizunari buruzko ikuspena zuten sinestredunak, hau da, Amabirjina eta santuen aldetik beren ikuspeneren sendespina espero zutenak. Bi ikusle mota hauek, elkar harturik, ahaleginak egin zituzten sinestarazten mundu eszeptikoari izaki zerutarrrak agertzen zirela Iberiar penintsulan. Haur errugabe batzuegandik hasi eta ehundaka ikuslerenganaino hedatu zen ikuspen-fenomenoa aren inguruan apaiz, fraile eta mojak, idazle eta argazkilariak, militarrek eta funtzionarioak, neskameak eta aristokratik, baseritarrak eta eskulangileak, eta haur askok Errepublikaren aurkako oposizioa bultzatzen zuten, apokaliptika eta Kristoren erreinua iragarritz.

Antropologo amerikarraren lana, urratsez urrats, ehundaka lekukorekin hitz eginez eta hemeroteke eta artxiboak xeheki eta egonarriz arakatuz, mundu konplexu eta nahasi hura berreraikitzea izan da.

Gauza asko eta ernegarriak ageri dira liburu honetan, izan ere Ezkioko agerpenen inguruan egin den ikerketarik xehe eta agortzailena baita, zalantzarik gabe, antropologo amerikarrak egin duena, eta ez da batere erraza zer duen miresgarriena: idazleak hartzen duen ikuspuntu orekatu eta aldendua bezain berneratua, ala giroa eta garaiko interes eta hartuemanen sarea berregitean ageri duen sentiberatasun eta ezagutza, urruneko eta hurbileko gertakariak elkarrekin bigiztatzen nabari duen trebezia txundigarria ala gehiegi esplizitatu gabe sakonean egiten dituen galdera antropologiko-filosofikoak: “Zer ikasi nahi du jendeak zerutik lurrean ikasi nahi ez duenik? Nola huts egiten izan dio elizek premia horiek asetzerakoan? Nolako eragina dute gudan ikusleek eta ikusleak urtenarazten dituzten sinestedunek? Nolako eragina dute ikuspenetako mezuek zenbait gaitan? Bistan dago Ezkioko ikuspenen gisakoak ugari zian direla La Saletetik hasi eta 90. hamarkadako gerra garaiko Bosniara eta Amerikara suburbanora bitartean. Egileak eta argitaratzaileek uste dutenez ikuspen eta ikusleen auziak oihartzun berezia du gure mundu honetan milurteko berri batera hurbiltzen ari garen heinean.

Hasieran eta berariaz, edukiaren aberastasuna eta kontaeraren liluragarritasuna aipatu ditut; agian norbaitek pentsa lezake liburuaren xarma hori, datuen eta eremu-ikerketaren kalteetan lortu dela. Horrelako susmorik inondik ere sor ez dadin, eta erreseina hau amaitu aurretik aditzera eman nahi dut, liburuak ia ehun eta berrogeita hamar orrialde dituela letra txikiz idatziak ohar, bibliografia eta gai- eta izen-aurkibidez hornituak. Hemeroteka-lana nolakoa izan den ideia bat emateko, autoreak erabilitako artikulua sinatu eta sinatu gabeen aipamenak bakarrik hogeita bost orrialde trinko hartzen dituela esan behar da. Beraz, horrela bakarrik ulertzen da nola berreraiki ahal izan duen egileak irakurketa desberdinak onartzen dituen fenomeno konplexuaren mundu hain ñabar eta trinko hori. Seguraski, liburu honetan zehar, Joseba Zulaika, Itziarko antropologoaren “hasieratik bukaerara proiektua buruz eta bihotzez bultzatu duenaren” ekarpena ere kontuan izatekoa da, nonbait, William A. Christian-en eraikitze-lan gaitz horretan.

Xabier Mendiguren Bereziartu



DIRASSAR, Janbattir
Hegiko bordatik
Donostia: Elkar, 1995. - 131 p.
ISBN 84-7917-543-5

Idazlea nor dugun: Lapurdiko Hazpainen jaioa 1937-an, nekazarilangile familia xume batean, kazetaria. Euskaraz idazten hasi zen 16 urteetan “Herria” astekarian, eta oraindik horretan dirau, astero artikulua bat edo biek. Laster “Sud-Ouest” egunkarian sartu zen eta 40